

Hil egin da joan den astean Narbaxako kontzejuan erreskatatutako ugatza

Aragoiko gobernuak 2020an jarri zion eraztuna ugatzari, eta Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak hilaren 8an erreskatatu eta Martiodako animalien suspertegira eraman zuen

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 13a. Joan den astean Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko basozainek eta Hontzako kide batek Narbaxako kontzejuan jaso zuten ugatza asteburuan hil da Martiodako fauna suspertegian, hilaren 8an erreskatatu eta bertara eraman ostean.

Albaitariak ahalegin guztiak eginda ere, Flumen -horrela deitzen zen 7 urteko ugatza- Martiodan hil zen, oraindik zehazteke dauden arrazoiengatik. Arrazoi horiek hobeto ezagutu ahal izango dira aurrerago, Neiker zentro espezializatuak dagokion nekropsia egin ondoren.

Aragoiko Gobernuak 2020an jarri zizkion Flumeni eraztuna eta irratimarka, eta hilaren 7an istripu bat izan zuen Narbaxako kontzejuan. Horren berri iluntzean izan zen, Aragoiko Gobernuak dei egin zuenean igorlearen eguneroko seinaleak animalia hilda, zailtasunetan edo igorlea galduta egon zitekeela adierazten zuela jakinarazteko. Argitzen hasi zenean, hurritz batean harrapatutako ugatza aurkitu zuten, eta Martiodara eraman zuten. Handik bost egunera hil da.

Ugatza hegazti sarraskijale mota bat da, 2,80 metroko luzera eta 7 kilogramoko pisua izan dezakeena. Oso zaila da Araban ikustea, baina azken aldian zenbaitetan ikusi izan dira Arabako ekialdean eta, batez ere, Arabako mendialdean.